

IR(A)UTEN: Altsasuko Santa Ageda festaren brodatuak aztertzen

Julen Herrero Beramendi
Antropologian graduatua

Artikulu honetan, Altsasuko (Nafarroa) Santa Ageda festaren materialitatea aztertuko da, batez ere, jantzietan eta brodatuetan arreta jarritz. Hainbat aldaketa jasan dituen festa da, eta jatorrian emakumezkoek ospatzen zuten festa zen. Bertan, haien zereginetako bat ardazketa, brodatzea eta abar ziren, horretarako bilkurak eginez. Festa gradualki aldatzen joan eta gizonezkoen presentzia handiagoa egin zen. Bilkurak tailerretara pasa ziren eta geroago banako bakar batzuetara. Brodatuen bidez, festaren bilakaera soziala, kulturala eta indibiduala islatzen zaigu.

GAKO-HITZAK: Materialitatea · Bilakaera · Brodatuak · Ospakizuna.

IR(A)UTEN: Studying the embroidery of Santa Ageda feast in Altsasu

In this article we will examine the materiality of Santa Águeda celebration of Altsasu (Navarre), focusing on the clothing and embroidery. It's a celebration that's undergone a lot of changes, and it was originally a women's celebration. One of their occupations was coaxing, embroidery, etc... holding meetings for this purpose. The celebration gradually changed and the male presence increased. The meetings went to workshops and then to few individuals. Embroidery reflects the social, cultural and individual evolution of the celebration.

KEY WORDS: Materiality · Evolution · Embroidery · Celebration.

1. Sarrera

Artikulu honetan Altsasuko (Nafarroa) Santa Ageda festak eduki duen bilakaera aztertuko da, batez ere, festaren parte diren brodatu eta jantzietan arreta jarritz. Horiek herriko emakumeek eginak dira eta hainbat eraldaketa bizi izan dituzte garai bakoitzarekin batera. Santa Ageda festa jatorrian herriko gazteria osoa biltzen bazuen ere, emakumezkoak ziren festa honen parte-hartzaile eta sostengatzaile nagusiak. Festa honetan, neguan zehar bilkurak egiten zituzten eta emakumezkoek esleitu zaizkien jarduerak egiten ematen zuten arratsaldea: brodatzen, ardazketan, puntilla egiten, etab. Mundu osoko kultura gehienak behatzen badira, harilkatzea emakumeei ezarri zaien lana eta zeregina izan da eta ezagunak egingo zaizkigu euskal testuinguruan nahiz beste herriko batzuetako mitologia eta kondairetan, ekintza horretan orduak ematen dituzten emakumeen istorioak eta pasarteak.

Lehen atal honetan, ikerketaren justifikazioa agertuko da hura abiatzeko arrazoiak zeintzuk diren zertxobait azalduz, ondoren, ikerketaren metodologia eta helburuak. Jarraitzeko hariaren inguruko datu eta istorioetan murgilduko gara, ikerketaren haria hori baita nolabait. Ondoren, Santa Ageda jaiaren bilakaera ikusiko dugu marko teorikoaren barnean kokatuta, janzkera eta brodatuen atalarekin batera. Ostean, Santa Ageda festaren jatorriaren inguruko ekarpenak eta Euskal Herriko testuinguruan erritu hauen zenbait adierazpen. Segidan, festako apaingarrien inguruko behaketa eta deskripzioa, bildutako materialarekin (prentsa, behaketa, banakako esperientzia). Bukatzeko, ikerketaren ondorioak eta amaiera edo hausnarketa.

2. Ikerketaren justifikazioa

2.1. Interesak

Gaia, interesaz gain, gertukoa da, izan ere, «zenbaitek» nerabezaroan eta adin nagusia heltzen denean ospatzen dugun festa da Altsasun. Sakana bailaran *kintadak* eta Santa Ageda indar handia daukan festa da eta igarotze-erritu bat dela esan genezake (Van Gennep, 1909). Gutxira arte, emakumeen papera «pasiboa» izan da gehienetan, eta ez dute nagusitasunik eduki festaren alderdi guztietan: bazkariak, dantza (zortzikoa), parranda... Egun, egoera bestelakoa da eta bi generoen parte-hartzea «berdintsua» da, festaren esparru eta elementu guztietan. Baina bada festaren jatorritik aldentzen ez den jarduera bat, hertsiki femeninoa izan dena eta, eraldaketekin, orain arte iraun duena: apaingarriak egitea, brodatzea, harilkatzea, etab. Ospakizunaren barnean, aldaketak izan dira apaingarrien (jantziak, zapiak, makilak) erritualen eta dantzaren barruan eta horiek aztertzea gustatuko litzaidake batez ere, horietan zentratzea. Beraz, ikerketa-ardatz bezala Generoaren Antropologia presente egongo da, baina baita bestelakoak ere: gizarte-egitura, euskal kultura, antropologia sinbolikoa... Horiek guztiak komunitate bateko etnografia lokalari aplikatuko zaizkio, bertatik ikerketaren emaitzak atera ahal izateko.

2.2. Helburuak

Gai honekin hasterakoan zenbait helburu finkatu dira ardatz moduan, gaiaren norakoa zehazteko nahian. Horietako batzuk segidan agertzen dira:

Helburu orokorra:

Altsasuko Santa Agedaren inguruan herrian izan den bilakaera historikoa eta soziala ezagutzea eta komunitatearen balioak zertan aldatu diren deskubritzea.

Helburu espezifikoak:

1. Denboran zehar izandako aldaketak behatzea eta aztertzen saiatzea. Hots, festa orain eta gaur egun nolakoa den ikertzea.
2. Aldatu diren ospakizunaren hainbat elementuri arreta jartzea; batez ere apaingarriei (jantziak, brodatuak eta *korosti*-makilak).

2.3. Hipotesiak

1. Populazioaren aldetik festak «garrantzi» handia du Altsasuren kasuan eta izaera hori hartu du urteetan zehar haren gainean bertakoek egin dituzten narrazioengatik. Horretaz gain, igarotze-erritu bat kontsidera daitekeen heinean besteak ez bezala, kutsu desberdina izanen luke hura ospatzen dutenen aldetik; izan ere, estatusez igarotzen dira: gaztetasunetik helduarora. Gaur egun geroz eta instituzionalizatuago dauden praktikak egiten dira: argazki-sesioak, jantzi bereziak erostea, brodatu eskusibo eta bereziak egitea... horrek festaren gaineko familia bakoitzaren aurrekontua handitzeaz gain, ospakizunari proiektio handiagoa ematen dio; izan ere, adin-nagusitasunera heltzeko oroitzapen hori gordetzea da helburuetako bat, baina ez dira oroigarriak argazki pare bat egiten, baizik eta, batzuen kasuan, argazki-sesio oso bat herriko argazkilari zenbaitekin. Festaren gainean beraz, nolabaiteko aldaketa bat egon da eta «indibidualizazio» joera bat dago, nahiz eta festa «kolektiboa» izan. Adibidez, sare sozialen fenomenoak ere festaren parte bihurtu dira, hura «ikusgarriago» bihurtuz.
2. Aldaketa nabarmenak egin dira festaren baitan, eta horrek lotura izan dezake gizartean eta komunitatean gertatzen diren eraldaketekin ere: sozialak, politikoak, kinto bakoitzaren bizitzan gertatzen direnak, zein haren inguruan. Horiek: pentsamenduak, gertaerak, balioak, harremanak eta abar festan azaleratuko lirateke beste ospakizun batzuetan baino gehiago, festaren elementu desberdinetan zehar. Elementu horietako bat apaingarriak izan daitezke: jantziak, zapiak, zintak (*gorosti*-makilak), etab.

2.4. Metodologia

Gaiaren inguruan dagoen informazioa eskuratzeko metodo kualitatiboa eta antropologikoa erabili da nagusiki. Haren barnean hainbat teknika baliatu ditut zegoen informazioa eskuratzeko eta ikertzeko:

- Ikerketa dokumentala:
 - Bigarren mailako iturriak: egunkarietan Santa Agedaren inguruan agertutako berrien analisia eta Katali brodatzaileari eginiko elkarrizketak (*Guaixe, Diario de Noticias*); *Gonbidatuak izatetik* (2014) liburuxkatik ateratako elkarrizketak; antropologikoak (Araolaza, Azcona, Alonso Rey, etab.).
 - Iturri etnografikoak festaren inguruan: Caro Baroja, Jimeno Jurío, Dolores Juliano, Txema Hornilla, etab.; ikus-entzunezko edukiak: *Gonbidatuak izatetik protagonista izatera* (2015) dokumentala Altsasuko Bilgune Feministak eginda; Altsasuko euskalkiaren inguruko grabaketak (Amaia Oiharbidek eta Izaskun Etxeberriak bilduak), etab.
- Elkarrizketa:
 - Elkarrizketa sakon bat: 60ko hamarkadako kinto biri, Joxe eta Luisa.
- Behaketa parte-hartzailea:
 - Teknika horietaz gain, behaketa eta nire esperientzia ere baliagarriak izan zaizkit festaren analisi bat egin ahal izateko, subjektu parte-hartzaile eta ikusle izan bainaiz.

3. Hariaren inguruko hurbilpen antropologiko bat

Euskal testuinguruan kanten bidez: «Oh Pello, Pello», «Brodutzen ari nintzen» kantek, adibidez, honen berri ematen digute. Mari jainkosa ere, kobazuloaren atean ahari baten adarrak baliatuz, harilkatzen irudikatua izan da. Barandiaranek bildu zituen euskal kondaira eta sorginekin lotutako istorioak, goruetan dauden neskatzekin hasten dira gehienak. Espainiar literaturan eta testuinguruan zerbait aipatzearen, *La Casa de Bernarda Alba*-ko esaldi batek dioen bezala: «Hilo y aguja para la hembra. Látigo y mula para el varón. Eso tiene la gente que nace con posibles» (Acto 1, 191-198 lin) generoen arteko dikotomia hori azpimarratuz. Greziar mitologian esaterako: Peneloperen istorioa, Ariadnaren haria eta minotauroaren kondaira, Parkak eta Moirak (bizitzaren eta patuaren erreginak), etab. Beste alde batetik, haria eta narrazioa oso lotuak egon dira emakumezkoekin eta hainbat hizkuntzatan harreman handia dago «testu» hitzaren eta «textil» hitzaren artean.

Hizkuntza askotan, «testua», «ehundura» (*texto*) eta «ehungintza» (*textil*) jatorri bera duten hitzak dira. Ehunaren metafora etengabea da hitzezko sorkuntzan; gaztelanian nahiz euskarari ere bertsuan erabiltzen dira zenbaitetan. Beste batzuk, berriz, lehenengo hizkuntza horretan ohikoagoak dira: diskurtso bat brodatzen dugu erdaraz; ideiak, hitzak harilkatzen ditugu (kontu baten haria, haria galdu, haria moztu...); planak irazkitzen ditugu; muinak lausotzen ditugu; korapiloak desegiten ditugu; gure kontakizunak bilbea, korapiloa eta amaiera dute (Vallejo, 2021).

Poema homerikoetako antzinako bardoaren izenak, rapsodak, «kantuen zuridoreak» esan nahi zuen. Gizateriaren historiari zaharretan urrutiko emakume ehuleen arrastoa aurkitzen dugu. Greziako mitologiak, aipatzerako, Aracnaren garaipen tragikoa kontatzen du, oihaletan narrazio zoragarriak egiten zituen emakumea. Haren

lanak hain ziren ederrak, non ninfek ere miretsi egiten baitzituzten. Bere abileziaz harro, Atenea brodatu-txapelketa batera desafiatu zuen. Jainkosak tapizean jainko olinpikoak irudikatu zituen bere maiestate osoan; Aracne lotsagabeak, aldiz, aita Zeus bera barrekarri utzi zuen maitasun-harrapaketa baldarrak irudikatuz: Europa, Dánae, etab. Neskaren lotsagabekeriak eta trebeziak umiliaturik, Ateneak mendekuaren zina egin zuen, eta Aracne, izaturik, urkatu egin zen. Orduan jainkosak armiarma bihurtu zuen, bere gorputzetik, parpaila delikatuak sortzeko haria ateraraziz. Mende batzuk geroago, *Mila eta bat Gauetan*, Sherezadek esango zuen: «Mundua armiarma-sare bat bezalakoa da, eta haren hauskortasunaren atzean ezereza dago» (Vallejo, 2021).

Kultura tradizionaletan, ehunek esanahiak, oroitzapenak, sinboloak, mezuak gordetzen dituzte: idazkerak dira. Inkek *quipu*-ak erabiltzen zituzten —kolore eta lodiera desberdinetako hariak— legeak edo elezaharrak gordetzeko. XVI. mendean, espainiarrek, ulertezinak zitzaizkien testuen aurrean urduri, *quipu*-ak suntsitzeko agindu zuten. Ehunka batzuk baino ez dira salbatu, gaur egun ere enigmatikoak eta desfizraezinak. Konkistak jatorrizko hari-alfabeto hori desagerrarazi zuen, sareen, sekuentzien eta loturen hizkuntza bat, programazio informatikoaren lengoaiari aurrea hartzen bide ziona. Bizirik atera zen «gerriko ehungailua», ehuntzea erditzearekin sinbolikoki lotzen duena. Zilbor-heste bat bezala, zuhaitz bati lotzen zaio, eta hari eusten dion gorputza kulunkatu egiten da, kontrakzio erritmikoen bidez. Erditzeak, sorkuntzak bezala, jostun-keinuak behar baititu: lokarri bat mozten da, amaren urradurak josten dira eta zilborra gure lehen korapiloa bihurtzen da. Remedios Varo-k *Bordando el manto terrestre* margolan mexikarrean amestu zuen bezala, mundua, agian, hitz egiten eta ehuntzen zuten emakumeek sortua izan zen (Vallejo, 2021).

Ehunek munduari forma nola eman zioten tesiari eusten dio Virginia Postrel-ek: ehunen historia giza asmamenaren historia da. 1900. urtean Arthur Evans arkeologo britainiarrak *Cnosos* lurpetik atera zuenean, Grezian, buztin egosizko oholtxo batzuk aurkitu zituen inskripzio batzuekin, bi idazkera mota identifikatuz, baina ezin izan zituen irakurri. 1952. urtera arte, jakin zen gotorleku bateko dorre gisa identifikatutako hieroglifikoa ehungintza zela. Arkeologoari ez zitzaion bururatu *Cnosos* ehungintza aberastasun-iturri zuen hiria izan zenik. Baina ez da bakarria izan, Postrel-ek dioen bezala: «Jende askok haren aurretik eta ondoren ez zuen kontuan hartu ehungintzaren paper nagusia teknologiaren, merkataritzaren eta zibilizazioaren historian» (Postrel in Gallo, 2022).

«Ehuntzea funtzio eta edertasun bat asmatzea da, asmatzea, hau da, elementu errazenetik abiatuta konplexuagoak bururatzea», jarraitzen du egileak, eta jarduera horrekin zerikusia duten hitzen erabilera, giza zereginen beste arlo askorekin «lotzeko» adibide batzuk jartzen ditu: «*Odisean*, Ateneak eta Ulisesek zerbait bilatzen dutenean, plan bat ehuntzen dute. Ingelesezt, “fabrika” eta “fabrikazioa” (‘ehuna’ eta ‘asmateza’, hurrenez hurren) hitzek latinezko sustrai komuna dute, *fabrice*, “trebetasunez ekoiztutako zerbait”. “Testua” eta “textil” hitzek antzeko erlazioa dute: *texere* (ehuna) aditzetik datoz, eta, aldi berean, “ehuntzea” esanahia duen *techne* hitzetik dator (teknologia hortik dator, adibidez), era beran, hitz hau, *teks* indoeuropar hitzetik eratortzen delarik» (Gallo, 2022).

Itzel Casillas Avalos filosofiako irakasle mexikarraren artikuluan esaten den bezala, ehundutako irudiek bereziki femeninoa den hizkuntza osatzen dute: Helena Troiakoak bere ehungailuan heroien balentriak eta, bera, kausa eta egile duten sufrimenduak errepikatzen zituen; Penelopek ehuntzen eta destolestean zuena, haren edukia ezagutzen ez dugularik, burutu nahi ez zuen ekintza atzeratzeko balio ziona (bortxaz ezkontzea). Ehuntzea eta ehungailua bi arrazoiengatik da ahots femeninoaren espazioa: ehungailuaren inguruan, etxeko emakumeen erdiak edo gehienak: alabak, neskameak eta haurrak biltzen dira. Lan egiten duten bitartean, abesti ederrak abesten dituzten tokia da, *Odisean* Circe eta Calipso jainkosa seduktoreek egiten duten bezala; bertan, inudeek eta amonek Platonek kondenatzen dituen ipuinak kontatzen dizkiete hurrei; haurrak, zazpi urtera arteko mutilak barne, kontakizun mitikoekin ohitzen dira leku horretan. Laburbilduz, ehungailua da etorkizuneko herritarrei kultura-ondarea transmititzeko tresna. Eta transmisio hori emakumeen ahotsaren bidez egiten da, poetek hezkuntza-funtzio horretan lekukoa hartu baino askoz lehenago. Ikus-entzunezko formazio horretan, ehundutako hitzak eta irudiak nahastu eta elkartu egiten direlarik (Frontisi-Ducroix, 2006, 240. or. in Casillas Avalos, 2022).

Jarraitzeko, autore berak diosku zeregin hau ahotsa hartzeko eta hizkuntza bezala ere erabili izan dela. Aristotelesen «anezkaren¹ ahotsa» (*La voz de la lanzadera*) esamoldeak, Sofoklesen Filomelari buruz ari delarik, hain zuzen ere adierazten du emakumeek ehungailuaren bidez hartzen dutela ahotsa. «Filomenaren mitoak» kontatzen du nola ehunaren bidez bere mututasunaren isiltasuna hautsi zuen, bere ahizpari bortxaketaren biktima izan zela ezagutarazteko (Frontisi-Ducroix, 2006 in *id.*). Beste adibide bat *nu shu* brodatuan dago, Txinako emakumeen arteko komunikaziorako hizkuntza sekretu gisa (See, 2005). Edo, orain dela gutxi, brodatze feminista edo «puntada subertsibo» gisa ulertu diren praktikak (Parker, 2010). Baina, era berean, emakumeek eta gizonek egiten duten jarduera da, gero eta gehiago generorik gabe nabarmentzen delarik (Casillas Avalos, 2022).

Hariaren inguruko gogoeta hau egin ostean, ikerketa-objektuaren inguruan jarraituko dut hizketan. Lan eta festa hau giza komunitate baten barnean ospatzen da, horretarako *komunitate* hitza zer den definitzen saiatuko naiz. Komunitatearen zentzua gizarte-zientzietan gatazkatsua izan daiteke, hala ere, ikerketa-objektua den komunitate/herriaren barnean ospatzen den Santa Ageda festak ardazten du lana. Altsasu soziogeografikoki eta lurraldetasun batean kokaturik dago, gizakiak lokatiboak baikara. Antonio Montesino (1992) antropologoak dioenez, gizakiok komunitatean bizi gara eta bertan (familiak, lagun eta auzoen taldeak, instituzioak) gure lehenengo esperientzia sozio-bitalak gureganatzen ditugu: arauak, balioak, eta portaera soziala. Taldeen barneko gatazkak eta kontrol soziala ere aipa daitezke (Montesino, 1992, 49. or.). Komunitatea elementu ezinbestekoa da banakoen bizitzako ziklo desberdinendako (bizi-zikloa, familiarra, laborala eta soziala) eta identifikazio-prozesuendako. Tönnies-en (1979) arabera, «denbora jakin batean, lurralde geografiko berean bizi diren, kultura komuna duten, gizarte-egitura batean egituratzen diren eta talde gisa nortasun bereizgarri baten kontzientzia partekatua duten pertsonen gehiketa da» (*ibid.* 49).

1. Anezka: 'lanzadera' erdaraz. Hariak bilbatzeko ('tramar') erabiltzen den zurezko edo zeramikazko pieza da.

Santa Ageda festa, bi espazio kontrajarritan zatitu daiteke: alde batetik arlo publikoa, gizonena (antolatzaileak, ezkila-jotzea eta zortzikoa dantzatzea), bestetik pribatua, emakumeena (etxeetan biltzea, irutea, apaingarriak egitea).

4. Jaiaren bilakaera

Testigantzek eta Jimeno Juríok (1974) ere bildua, Altsasun 13 urtetik gorako neskatxa ezkondu gabeak biltzen ziren 8-10 kidez osaturiko taldetan eta herriko neska gehienek parte hartzen zuten. XIX. mendearen bukaeran 200 bat neska biltzen ziren 2.000 biztanleko herri batean (Juliano, 1992, 116. or.). 20:00etatik 22:00etara biltzen ziren eta bezperan neskak eskean ibiltzen ziren kantari. Bildutakoarekin otsailaren 5ean bazkaria prestatzen zuten mutilendako eta etxeko nagusiarendako, herriko familia batek biltzeko etxea uzten baitzien. Ordainetan artoa eta etxeko piezak jorratzen zituzten (*id.*). Nesken festa ez zen hierarkizatua eta familia-giroan egiten zen.

Gizonena, aldiz, (publikoa) indarra galtzen zihoan eta erabat desagertu zen 1905. urtean. Emakumezkoen festa, berriz, inoiz baino osasuntsuago mantentzen zen; izan ere, etxeetan biltzeko ohiturak jarraitzen zuen. Urte horretan, aurrerago aipatu bezala, sute bat egon zen herriko fabrika batean (langile gehienak gizonak izanik) eta herritarrek hura zigor moduan ikusi zuten, festaren alde publikoa baztertzearatik (Juliano, 1992, 116. or.). Hurrengo urtean, alde publikoa gizon kintoak betetzen joan ziren eta hura sustatu egin zen. 1920ko hamarkadan jostundegiak pisua hartzen joango dira (eskulanaren profesionalizazioa) eta, ondorioz, nesken koadrilak desagertzen joango dira, harik eta 30eko hamarkadaren inguruan koruak eta nesken-eskeak galdu arte (Altsasuko Bilgune Feminista, 2014, 9. or.).

Aspaldi eta aurrerago ikusiko den bezala, festa hau emakumezkoena zen eta haien arteko komunikazioa garrantzitsua zen. Diotenez, elizak ezin zuen etxe barruetan zer gertatzen zen kontrolatu, eta eskua sartu zuen festa egiteko modua aldatzeko; beraz, festa plazara ateratzeko ahaleginak egin zituen (*ibid.* 10). Espazio publikoan, kontrolagarriagoa zen modu batera egiten zena, eta elizak dantzaren alorrean ere neurriak jarri zituen (zapiak adibidez).

1962. urtean lehendabiziko mugimenduak hasi ziren neska kintoak parte hartze aldera baina mendekotasunean, urte horretako neska kintoak izan ziren lehen aldiz kafera gonbidatuak eta modu horretan jarraitu zuten 20 urtez (*ibid.* 9). 50 urteko epea izan da aldaketak gaur egunera arte iraun duten bezala aldatzeko.

80ko hamarkadan, neska kintoek estrategia andana erabili zuten protagonismo gehiago edukitzeko: festa mutilengandik aparte eginez; ikusgai agertzeko *kaxera* jantziz; bezperan eskean ibiliz; opilak emateari uko eginez batzuek; negoziatziora joz eta abar. Kinta horrek «intsumitu» ezizena jaso zuen, garai horietan intsumisioaren mugimenduak zeukan indarrarengatik, batez ere Nafarroan (Guaixe, 2014). Mutikoen beldurra zen festaren protagonismoa galduko ote zuten edo, eta diruarekin ere zerikusia zuen haien mesfidantzak: dirua ez zela denondako soberan egongo zioten, hala ere, frogatu egin da denak batera ateratzean diru gehiago jasotzen dela, proportzio kontuagatik batez ere. Horretaz aparte, badaude bazkarietara urtero joateri utzi ziotenak, bere garaian opilkadekin harrera egitearen ondorioz (Guaixe,

2014). 90eko hamarkadan, agiri bat ere atera zuten egoera salatzeke eta tradizioaren argudioari aurre hartu zioten esanez ez zela hasieran mutilak soldaduskara joateko egiten. Festari eransten zitzaion konnotazio militaristari uko egin zioten eta haren izaera ludikoa azpimarratu zuten: nagusitasunera heldu den gazte-jendea herriko pertsonen borondatez ospatzen zen festa bezala (Altsasuko Bilgune Feminista, 2014, 17-18. or.).

2000ko hamarkadatik aurrera gauzak arintzen joango ziren. Lehendabiziko erregina bat zozketatuko zen, alkatea emakumezko bat zela probestuz, eta hura lehendabizi zortzikoa San Pedron dantzatu zuen emakumea izanik (*ohorezko zortzikoa*), bigarren erregina bat egoteko ezezkoa atera zen eta lehenengoak dantzatzeko saiakera ere, ez zen onartua izan. 2001. urtean «erregina-ordea» edo «bigarren erregina» aukeratu zen estreinakoz. 2005. urtean bi neska kintok lehendabiziko aldiz dantzatu zuten: txistuak eta irainak egon ziren, baina zortzikoa arazorik gabe bukatzea lortu zuten. 2008. urtean lau neskek ez ezik, beste kintako guztiek ere dantzatu zuten. Hiru urteren buruan, egoera guztiz irauli egin zen: *Boteroa*ekin batera *botera*² ere aukeratu zen, dantzatzera atera beharreko bikotean generoa garrantzia galtzen hasi zen. 2013. urtean neska-mutiko guztiek festa batera ospatzea lortu zuten, hark dauzkan esparru guztietan: tortak egiten (batera egiten hasi), zortzikoa dantzatzen, kaletik zehar eskatzen, bazkarietan, etab. (Guaixe, 2014).

5. Janzkera eta brodatuak: Bi elementu hauen apaingarri eta aldaketaz

Janzkeraren aldetik ere, prestakuntza berezi bat dago Euskal Herriko beste txokoetako festetan errepikatzen dena. Kolore nagusia (gizonen kasuan) *txuria* da eta emakumezkoenetan mertzerietan erositako baserritar edo *kaxera*³ soinekoak askotan okasiorako prestatuak eta kolore, brodatu eta apaingarriekin. Mutikoek, aurrerago aipatu bezala, zapiak ere eramaten dituzte, antzina emakumeek emanak. Zapi horiek elkar ez ukitzeko erabiltzen ziren eta orokortua da beste herrietan ere, hala nola Baztanen eta Malerrekan dantzatzen diren zortziko eta *Trapatan* dantzan, Lizarrako Larrain-dantzan eta abar. Zapi horiek mutikoek eskuetan eramaten zituzten, kalejirarako batez ere. Gainontzekoan, soinean jartzen zituzten zortzikoa dantzatzeko.

Gizonen janzkeraren kasuan, aldatu direnak gerrikoa eta zapiak dira (oinetakoak ere, alpargatak maiz erabiltzen ziren). Argazki zaharrak behatzen baditugu, gerriko finekin janzten zirela dakusagu, pilotariak janzten zutenaren antzekoa (kolorea ezin daiteke ondo ikusi, baina seguruenik, beltza edo gorria litzateke, Euskal Herrian zehar, gorria eta zuria baitira festetan eta dantzetan erabiltako koloreak, Oier Araolazak (2020) esan moduan, sanferminak, Debagoieneko kintoak, aureskua, etab.).

2. *Boteroa* eta *botera*: ardo-zahatoa daramaten mutikoa eta neskatoa dira. Kintoak egarri direnean eskaintzen diete. Figura hau kantabriar isurialdean ospatzen diren festetan ere agertzen da eta, herriko gizon gazteen kuadrillara agregatzen den figura subalternoa da, taldera sartzeko dotea ardoarekin ordaintzen zuena. Helduarora sartzen zihoan mutiko gaztea zen, zaintzen zuten baina baita ere bihurrikeriak egin (barrabilak bihurritu) edo edanean trebatu (Montesino, 1992).

3. *Kaxera* edo baserritar moduan janzteari erreferentzia egiten dio. Euskaraz baserritar hitza hobesten bada, Altsasun «kaxera» askotan erabiltzen da, beraz hemendik aurrera hitz hori erabiliko dut. Gaiaren inguruko beste herriko iturrietan eta informatzaileek ere horrela darabilte.

Zapien arloan batez ere, atzean eta aurrean eramaten direnak (perpendikularrean), aldaketak egon dira brodatuetan eta iruditerian, honela: iruditegi abertzalea eta lokala irudikatzen duten figurak daude, baina baita kintoaren filiazioa (familia ezkutua eta bi abizenak) edo afizioak edota gustuak eta bizipenak ere.

Emakumezkoen kasuan, kaxera-jantziak 80ko hamarkadan erabiltzen hasi ziren eta hori ekintza moduan egin zuten emakumeek. Neskek ohiko arroparekin ospatzen zuten festa, harik eta 1987an kaxera janztea erabaki zuten arte. 1987ko neska kinto batek kontatzen digu: «Kaxeraz janzteak, bere ezaugarriaz aparte, ikusgai bihurtzen gintuen eskubidedun, gorputzak bezala, nortasun eramaileak, gure izaera modu eztabaida ezinez agerian jarritz, espazio eta ahalmen kolektiboa irabaziz. Horixe, bazterrezinak bihurtu gintuen» (Altsasuko Bilgune Feminista, 2014, 18. or.). Kaxera-jantzi horiek mertzerietan erosten ziren eta «gipuzkoar» erakoak bezala ezagutuak dira. Beltzak eta puntu zuriak gehienetan; mantal eta buruko zapiarekin batera, nahiz eta azkeneko hau gutxitan jarri (ia inoiz ez).

Galdakaoko Andra Mari dantza-taldeak bildu bezala: Santa Ageda bezperan Altsasun kantatzen zuten neskek ez zeramaten makilik. Arropak kantatzen zen garaikoak izango ziren (XIX. mendearen amaierakoak XX. mendearen hasierakoak) eta ez eguneroko lanean erabiltzen zituztenak, baizik eta egun seinatuetaarako zeuzkatenak. Sasoi horretan Altsasun ez zuten buruko zapiarik erabiltzen eta ez ziren egun berezietan «baserritar» jantzita ibiltzen, argazkiek erakusten duten bezala (Santa Agedak Altsasun in Andra Mari Dantza Taldea, 2011). Emakumeek ez zituzten normalean lau zapi eramaten, normalean emandakoa janzten zuten. Orain, aldiz, haiek dantzatzen dutenez badaramate dantzara ateratzeko zapia. Zapi horiek mertzerietan erosten dira eta estanpatu italiarrak dauzkate, barrokoak edo *Carré de Hermès* ere deitzen direnak.

Zapi horiek, batzuetan, amona, alaba eta bilobek oinordetzan izatea edo gordetzea ohikoa da, zenbait etxetan bederen. Baina, ohikoagoa da eta jada «instituzionalizatu» da, atzealdean zapia eramatea edozein eratako brodatuekin eta mutilen antzera, modu anitzetan pertsonalizaturik daudelarik. Oier Araolazaren arabera (2020), ohiturazko jantzia esanahiz betetako zeinua da dagokion kulturaren ezagutza dutenentzat. Werner Enningerren (1992, 219. or.) esanetan, komunitate bakoitzeko kideek jantzi eta janzki zehatzak esanahiz betetako zeinu moduan irakurtzen dituzte, berbazko eta gorputz bidezko lengoaiak bezala kulturaren ezagutza partekatua baita. Komunitateko kideek, lengoia bezala, partekatu eta ikasten duten janzkeraren zeinu-sistema. Jantziaren bidez bereizi daitezke norbanakoaren zein taldearen identitateak: identitate kulturalak (europarra, arabiarra, afrikarra...), erregionalak (eskoziarra, tirolesa...), sozialak (langile-klasea, burgesa) sexu-generoak, adin-segmentuarenak, funtzionalak (lanbideak, zeremonialak...), eta pertsonalak proiektatuz (Enninger, 1992, 218-219. or.; Goñi & Mujika, 2010, 6. or. in Araolaza, 2020, 420. or.).

Dantzariak eta pilotariak aipatzen dituzte Goñik eta Mujikak, janzkera berbera zeukaten. Dantzarako uniforme zuriak bat datoz Ane Albisuk (2006, 56-59. or.) «erritual jantzia» zein «sport» janzkera izendatu duenarekin. XIX. mendearen bukaeran, kirola egiteko ohitura sortu eta hedatu ahala, ordura arte barruko

arropa moduan erabili izan ziren janzki zuriak gorputz-ariketa egiteko erabiltzen hasi ziren. Zuriaren izaera erritualaz ere, Hornillak (1989) hitz egiten digu: zenbait kulturatan iniziatua den gaztearen gainean elementu komunak biltzen dira eta horiek segregazioa, zurtasuna (purutasunarekin lotuta), eta androginizazioa dira (Hornilla, 1989, 81. or.). Aipatu beharra dago kolore zuria ere zerbait funtzionalagatik izatea; izan ere, gehienek kolore horretako arropak zituzten, barnekoak badira ere, eta tindatzea gutxiren esku zegoen ekintza zen. Beraz, ikuspegi materialista batetik hausnartzen badugu (eta hau hipotesia da), kolore horrek traba gutxiago eta homogenizazio gehiago eragingo luke denen artean agian.

5.1. Brodatuak eta haien irudikapenak: Identitatea-Afektuak-Heriotza

Brodatuen inguruan aldaketa nabarmenak izan dira, hasiera batean mutikoek zerabiltzaten zapi eta makiletan, baina geroago neskeen jantzi edo zapietan ere bai. Brodatuak normalean herriko emakumeek egiten zituzten: hasiera batean etxeetan, geroago tailerretan eta ondoren neska kintoen eskuetara pasa zen zeregina. Zintak, Santa Ageda heldu baino lehen «enkargatzen» dira gaur egun, baina duela gutxira arte lagunek, arrebek, amek edo bestelakoek egindako opariak ziren kintoarendako. Brodatzaileak animoak eskaintzen zizkion kintoari eta festarekin zerikusia zeukaten brodatuak nagusitzen ziren: iruditegi lokalekoak eta Santa Agedarekin zerikusia zutenak. Beste alde batetik ere, zinta hauek dedikatu egiten ziren egilearen edo familiaren aldetik baziren. Makilak lehen egunean ateratzen zirenez, «ohikoa» ere izan da, batetik bestera pasatzea (osaba-ilobak, aita-sembleak, aitona-bilobak, etab.). Brodatu hauek guztiak aztertzea garrantzitsua da, izan ere materialtasunaren bidez festaren aldaketak islatu egin dira, batez ere, parte-hartzaileek bultzatuta eta garai bakoitzarekin batera.

Identitatea

Egun, Santa Agedarekin eta irudi lokalekin zerikusirik ez duten brodatuak ikusten ditugu zapi zein makiletan eta hauek askotan kintoaren «adierazgarri» moduan jokatzen dute. Brodatzeraren ekintza erabat femeninoa izan da eta horren berri ematen digu Dolores Julianok (1992). Idazketarik eta botere gutxi izan duten sektoreen ahotsa ikusteko hainbat teknika azpimarratzen ditu berak argitara emateko: ahozko istorioak eta bizi-istorioak batik bat (Juliano, 1992, 163. or.). Berak dio arazoa ez dagoela teknikan edo aktore sozialen partetik informazioa eskuratzeko orduan, baizik eta metodologian eta planteamendu teorikoetan. Horretarako, brodatuen adibidea jartzen du: brodatu batek ez dauka margolan batek bezainbesteko prestigio eta aitortzarik, nahiz eta lan erabat neketsua eta artistikoa izan (*ibid.* 164).

Soinekoen edozein museo bisitatuz gero, brodatu edo farfail ikusgarriak behatuko ditugu, balio estetiko handikoak eta lan espezializatuaz eginak (...). Sormena artistari aitortzen zaio eta ez exekuzio-merituei, baina azaltzea falta litzatzeko, ez baita baloratzen, brodatzaile anonimoen sormena «disenatzailerik» gabeko hainbeste tapiz, oihal eta jantzitan. Kontuan hartuta gure kulturen, brodatzea funtsean, zeregin femeninotzat hartua izan dela. Agnes Fineren tankerako lanek erakusten dute brodatzea ez zela soilik rol femeninoa barneratzeko eskola, baita autorrealizaziorako gunea eta generoaren-sinbolo bat ere bazela (*id.*).

Lan handiko jarduera izateaz gain, endokulturazio⁴ erritu/ekintza ere bazen. Batzuen kasuan artelan eta mimo handiz egineko objektuak dira. Zinta eta zapi horiek, objektu kontsidera daitezkeenak, kontakizun bat helarazten digute eta bertan hainbat errepresentazio ikus ditzakegu. Horiek hiru taldetan banatzen dira eta subjektua gurutzatzen dute hainbat mailatan: indibiduala, soziala eta komunitarioa. Montesinok (1992) gogorarazi bezala, komunitatea espazioen *continuum* bat baita: etxea-auzoa-herria-eskualde-erregio eta talde bereiziena: haurra-gaztea-heldua-zahartzaroa-gizonak/emakumeak: nekazari pobreak/nekazari aberatsak eta abar. Espazio eta gizarte-errealitate horrek azpiegitura sinboliko-kultural bat garatu du, hainbat identitate komunitario edo suprakomunitario produzitu eta erreproduzitzeko. Gure gizarte-lurralde-eremuko denbora/espazioa indartzea helburu duena (Montesino, 1992, 52. or.).

Horretaz gain, etnizitatea eta nazio-identitatea ere garai batetik aurrera islatu egin dira brodatuen bidez (*etnizitate-bideratzaileak*).

Euskalduntasunak besteekiko ezartzen duen muga eta berezkeiak gizarte-indar mugatzailea eta aldarrikatzailea ematen dio; portaera kolektiboa zehazteko gai dena. Hitz batean: hizkuntza, abestiak, dantzak... euskal gizon tipikoaren ezaugarriek, gizakiak eta euskal kultura osoak, haren errealitate enpirikoa gainditzen dute eta espazio geografiko, fisiko eta soziala mugatzeko eta aldarrikatzeko gaitasun soziala lortzen dute. Horrek, batasun komunitario politiko batera daramatza, barne-kohesio nazionala sendotzera edo ezean, komunitate nazional hori osatzeko helburu edo asmora (Azcona, 1984, 20. or.).

Afektuak

Objektuen garrantziaz hainbat autorek hitz egin digute, horietako bat Natalia Alonso Rey (2011, 2016, 2017) antropologoa da. Haiek, bizitzako pasarte batera edo, kasu batzuetan, hildako pertsona batekin konektatzen gaituzte. Objektuek subjektuetan eragin ditzaketen emozioaren eta atxikimenduaren arteko harremanaren ikerketan nabarmendu daiteke estatu-mailan (Ruiz Torrado 2019, 279. or.). Objektuek «egin» dezaketena kontuan hartu beharko da, pertsona batengan hainbat ondorio eduki baititzakete. Elkarerraginean dagoen harremana daukate: objektua ezin da subjektu gabe definitu eta subjektuak zenbaitetan objektua behar du bere burua azaltzeko edo agian horrek beste oroitzapen berriak aktibatzen dizkio: «Azken finean, pertsonak gauzak “egiten” dituzten bezala, gauzek pertsonak “egiten” dituzte» (Laviolette, 2013, in Alonso Rey, 2017, 27. or. in *id.*).

Alonso Reyren arabera (2016), pertsonak haien objektu biografikoekin dituzten interakzioek edo harremanek haien esperientzia asko ulertzen lagun diezagukete. Pertsonak gordetzen dituzten objektuak oso esanguratsuak dira beren jabeentzat, botere sinboliko eta oroitarazle argia dutelako (*evocador*). Horiek leku, une, gertaera eta harreman garrantzitsuak beren baitan eramaten dituzte eta horrek biografia partikularra trasladatzen ditu subjektuak (Alonso Rey, 2012 in Ruiz

4. Endokulturazioa: Gizabanako batek bere gizarte edo taldeko kultura bereganatzeko prozesua da. Hizkuntza, balioak, sinesmenak eta bestelako elementu kulturalak eskuratuz. Prozesua, familiaren baitan eman daiteke, eskolan edo beste erakunde sozialetan eta kultura transmisiorako mekanismoen bitartez (Gizapedia, 2024).

Torrado, 2019, 280. or.). Modu horretan, objektuek iragana gogoraraztearen eta kontatzearen funtzioa betetzen dute oroipen-eragile moduan jokatzuz (*detonantes de rememoración*).

Heriotza

Maizetan ere, identitate lokal, supralokal eta komunitateaz gain, heriotza eta hilotzak adierazteko modua dira zintak eta zapiak. Hilotz horiek kolektiboak izan daitezke: kinto baten galera adibidez, edo indibidualak: senidea, lagun bat. Heriotza aztertu duten egile klasikoen artean, Frazer, Tylor, Hertz, Van Gennep, Durkheim eta Lévi-Strauss nabarmendu daitezke. Haiek, heriotzaren dimentsio sozialari buruz eta interpretazio teorikoen nahiz oinarri metodologikoen zati bat eraiki zuten, ondoren kulturetan duten esanahia eta funtzioa lantzen laguntzeko (Allué, 1998, 69. or.).

Montesinoren aburuz (1992), maizetan, heriotza memoria kolektiboan, komunitatean ere islatzen da, auzotarren soziabilitatea indartuz. Modu horretan hildako komunitatearen kideak festan «integratu» egiten dituzte hainbat mekanismoren bidez: komentsalitatea, kantuetan, etab. Erritua, zentzu zabalean ulertua, adierazpen-unitate sinboliko bat da, gizarte jakin bateko kideek kulturalki definitua, eta ekintzek izendatzen dutena (Leach, 1973 in *id.*).

Errituak bizirik daudenek hildakoa agurtzeko eta gurtzeko moduak dira. Hilobiak Dandel-en hitzetan (1976) «oroitzapenaren protes bat baitira» (Allué, 1998, 72. or.). Arnold Van Gennep-ek (1986), lehen lanetan, antropologia sozialaren barnean mugarri izan diren kontzeptu batzuk garatu zituen Turner-ekin (1988) batera. Igarotze-erritu terminoa eta haren interpretazio-esparrua finkatu zituen, *muga* eta *liminalitatea* bezalako beste kontzeptuekin batera.

Duche Pérez-ek (2011) Goody (1998) parafraseatuz dio hildako zeremoniak ez daudela familiaren esku bakarrik, talde guztiarengan baizik. Hildakoa, gatazka guztiak sosegatu egiten baitira edo zenbaitetan haiek azaleratu. Heriotza komunitate batek ir(a)uteko modu bat da eta elkar errekonozitzeko, arbaso komun bidez, eta banakoak ehuntzeko modu bat (*kohesioa*) hitz-jokoak eginez: «Heriotzak batasuna eta oroimena dakartza, ez banaketa edo ahanztura» (*ibid.* 211).

García-Orellán-ek (2004), bai eta Aretxagak (1988) ere, zenbait errepresentaziotan *Ethos* kultural euskaldunaz hausnartu zuten. Bi mailatan bana daitekeelarik: «Portaera kolektiboa aztertuz eta kontakizun biografikoen bidez. Portaera kolektibo oro eragile sozial bakoitzaren biografian oinarritzen da. BATA, *Ethos*-a den, OSOAN dago, baina OSOA edo GUZTIA, BAT guztien abstrakzioa da (García Orellán, 2004, 747. or.).

6. Santa Ageda festa paganoa eta femeninoa jatorrian

Santa Ageda festa Caro Barojaren *El Carnaval* (1979) liburuan aipatzen den moduan, emakumeekin eta emankortasunarekin lotuta zeuden jaiak ziren erromatarren garaian. Festa hura *Matronalia* izenarekin ezagutzen zen. Emakume ezkonduak eta matronak ziren protagonistak egun horretan eta gizonezkoek opariak

egiten zizkieten. Horretaz gain, etxekoandreek garrantzia hartzen zuten gizon ezkongabeen aurrean, aipu honetan agertzen den moduan: «Matronaliak senarrek ospatzen zituzten beren emazteei opariak eginez eta esklabuentsako Saturnalia festak bezalakoak ziren: “askatasuna” ospatzeko jaiegun bat (...). Etxekoandreek agintaritza zeukaten egun hartan eta gizon ezkongabeak festak iraun bitartean bigarren planoan zeuden» (Caro Baroja, 1979, 368. or.).

Espainiako haibat herritan ospatzen diren Santa Ageda jaietan emakumeak protagonista bakarrak izan ohi dira. Horietako adibide batzuk ikus daitezke Segoviako zenbait herritan, Zamoran eta Salamancan, baina, batez ere, Espainia barrualdeko herrietan. Horiek emakumeen asoziaziorako espazioak eta festak ziren eta gizonak gutxitan esku hartzen zuten (musikariak izan ezik) eta soilik arratsaldeko dantzaldietan, zenbaitetan emakume eta gizon ezkongabeekin batera; izan ere, herri askotako ospakizunetan, emakume helduek eta ezkonduak edo alargunek parte hartzen zuten soilik bazkarietan (Caro Baroja, 1979, 373. or.).

Horrela, bilduta dago, adibidez, Urgell-en (Katalunian), Santa Ageda eguna oso garrantzitsua dela eta sainduari emakumeen bularretako minak sendatzeko deitzen zaiola; horretaz gain, zeregin eta agintaritza erlatiboa ezartzen zaie emakumeei egun horretan: elizako kanpaiak bakarrik jotzen dituzte, eskean doaz, bakarrik dantzatzen dira, nahi duten bikotea ateraz eta bestelakoak egiten zituzten inguruko pertsona kontserbadoreak lotsatuz (*id.*). Aipatzekoa da, aurrerago aurki ikusiko dugun bezala, etxe-barruetan izaera sexualeko topaketak ere egiten zirela.

Frades-en (Zamora) maiordomoak bi ezkongaberekin (*célibe*) doaz haiek aukeratuak eta haiekin eskatu, dantzatu eta afaltzen dute. Mutiko horiei *zanganoak* deitzen diete: «Zangano izena ezin da esanguratsuagoa izan: erregina ernaltzea helburu duten erleen arrak dira. Oturuntzan sartzen diren bi gizon gazte eta ezkongabe hauek ugalkortasuna ziurtatzera doaz» (*ibid.* 375).

Badaude inauteriaren inguruan egin diren interpretazioak: Soziologiaren aldetik (esklaboaren matxinada kontsideratu da) eta Psikologiaren aldetik (banakoen erreprimututako sen primarioen loraldia). Bien arteko berdintasuna, aldiz, inauteriak bai plano indibidualean edo bai komunitarioan, barnean dauden tentsioak era kontrolatu batean askatzeko modu edo bide bat direla dio Hornillak (Hornilla, 1989, 17. or.). Egun jakin batzuetan jendeak edo gizarteak hartzen zuen lizentzia zen, estrukturak berdin jarrai zezan, soilik elementu batzuk mugituz eta denbora-tarte batez (ihes egiteko balbula). Horiek motibo produktiboekin egin zitezkeen (Marx) edo etekin bat lortzeko (Levi-Strauss) (*id.*). Erritu eta ospakizun hauek gehienetan negu aroan zehar zabaltzen dira eta jai kristauekin sinkretizatu ziren hiru egunetara mugatu nahi izan zituztelarik, baina beste festa zaharragoekin lotura daukate: *Saturnalia*, *Lupercalia*, *Matronalia* (hala nola San Nicolás, Inozenteen eguna, Santa Ageda, Urtezahar, San Blas, etab.) (*ibid.* 16).

6.1. Iniziazio-proba femeninoak

Izan ere, badaude Santa Agedan edo data horietan egiten diren ospakizunetan iniziazio-proba femeninoen zantzuak ikusten dituztenak. Horren adibide bat

Txema Hornillak (1989) ematen digu. Haren ustez, Euskal Herrian beste munduko kultura askotan bezala, emakumezkoek beren errituak egin dituzte gizonen aldetik aldenduz (*weiberbünde*) eta asoziaziazio sekretuen bidez (Hornilla, 1989, 113. or.). Emakumeen inimizazioa gizonena baino aurreragokoa da, eta «naturarekin» zerikusi gehiago dauka «kulturarekin» baino. Hala ere, «natura-kultura» banaketa horren inguruan 1972an Sherry Ortner-ek idatzi zuen antropologia feministaren oinarritzko testua: «Is Female to Male as Nature is to Culture?». Egileak artikulua horretan argudiatzen du oposaketa bitarrak kategorien ikuspegi esentzialista dakarrela berarekin (Ortner, 1972).

Euskal inauteriaren barruan baina bestelako ohitura batzuetan ere antzeman daitezke: Mayen festak, ardazketarien bilkurak, Mariren tutoretzak, askatasun sexualen ekintzak eta jaiotzen ondorioz egiten ziren emakumeen bilerak (Hornilla, 1989, 138. or.). Horrela, gizonen artean adin-igarobide hori egiteko ez dago baldintzarik eta hainbat adinetako gazteak biltzen dituzte errituetan edo inimizazioetan; emakumeen artean, aldiz, pubertasuna heldu dela argiagoa da eta hori biologikoki determinatua datorrelako dio. Hau da: lehendabiziko hilekoarekin. Behin une hori iritsita, neskatoek haurtzaroaren eta familiaren munduarekin hautsiko dute eta bereiziak izateko unea helduko zaie inimizazioak izaera kolektiboa hartuz; izan ere, herriko andre zaharrek erakutsiko dizkiete ohitura tribalak, erlijio-tradizioak eta sexualitatearen eta emakortasunaren sekretuak (Eliade, 1975, 76. or. in Hornilla, 1989, 74. or.). Altsasuko eta beste leku batzuetako ohituretan, nagusia zen andre batek anfitrioi-papera egiten zuen eta geroago elkarrekikotasunaren legeari jarraituz, udan haren soroak eta aziendak jorratzen zituzten trukean.

Ezaugarri batzuk dituen sinbolismoak bereizketa-erritu hauek ditu: 1) Gazteen androgenizazioa aurrera eramaten da, bakoitzak beste sexuko arropak janzten ditu, horrela gaztea, ez gizon eta ez emakume litzateke, hori gizonen inimizazioetan eta inauterietan ere gertatzen da, zuriz janzten dituzte baita ere (Dayak-en artean). 2) Eguzkiari begiratzeko debekua Eliaderen arabera emakumeek eta Ilargiak duten lotura mistikoagatik da, itxialdiak iraun bitartean kanta eta dantza batzuk ikasi beharko dituzte (askotan sekretuak eta lizunak) eta lan nagusiki femeninoak ikasi behar dituzte: ardazkatu/irun eta ehundu (puntua egin ere edo trikotatu). Horiek sinbolismo erlijiosoa zutela diote eta munduaren sorrerarekin lotuta zeuden mitoei harremanetan (Eliade, 1975, 82. or. in *ibid.* 82).

Probintzian⁵ ee probintzia aldín, jendí alégeri da! Oso jende ondo etortzeko modukúk! Ta Bilbaun da... ibiltzen dian mutil samaldák⁶, mutíki samaldák! eskín! ta jendiek balkonatati goití botatzen zuein⁷ diruba, hairi diruba. Baya Santa Ageda egunín..., han ikusko zenduzén⁸ ze jaiak iten zian!... Hemen ezta hala..., jarri zian... orduban asko gindan baya!... geo gutxitu zan jéndi!... ta kendu zian lan hoiek. Guk dantza danakin, Santa Ageda egunin! Mutikiak eh... faten zian Santa Agedako mutíki hoiek, faten zian guegana ta, dantzan hasi, gerritik agárta ta goral iyotzen

5. Probintzian: Gipuzkoan, Sakana osoan erabiltzen da, *prointzeno probintziano* lurralde horri erreferentzia egiteko.

6. Samaldak: jendetza, taldea, saldoa.

7. Zuein: zieten/zioten.

8. Zenduzen: zenituen.

zegubéin⁹...! [irriak] Haik indarsubak eta gu gaztik!... ba a ver...! Geó kuadrílli itén gendubén, lana fáteko, batzuk ardazketá, beste batzuk puntilla itea, eta faten ginan negúban etxe batea, faten zian mutilak gitarri ta akordeonakin, faten zian dantzaa¹⁰, dantza inazitzen¹¹ zegubéin danak, kuadrillan, ta geo udan etxeko andrík, faten ginan etxeko andrík, egun batín, yaten¹² zegún jorraa, jorratzea. Ta lan asko iten zen, harekin (...) nauri, etxin patzen zenai, jai... kantari, ayayay... hain mutil haien garrasiak haien gitérrak, haien dantzak! Ezkatzin¹³, ezkatzien dantzak... halaxe... (Oiharbide eta Etxeberria, 1986).

6.2. Euskal Herrian errituen zenbait adibide

Euskal Herriko testuinguruan adibidez, *arreo*a egitea emakumeak ezkontidearen familiari eskaintzen zizkion oparietan zetzan: oihalak, objektuak, dirua, etab. Emazteak gaztetatik haren familiako emakumeek lagundurik egiten zituen oihalei deitzen zitzairen arreo eta askotan brodatuak edo apaingarriz josita zeuden. Emakumeentzat arreo prestatzeko berebiziko garrantzia zeukan; izan ere, etorkizun batean ezkondu ahal izatea bermatzen zuen eta bertako kulturaren errotuta zegoen zerbait zen (Azkue, 1935, 272. or.). Horretaz aparte, oso esanguratsua da denbora batez aipatzen ari garen Txema Hornillaren *La mujer en los ritos y mitos vascos* (1989) liburuan esaten dena; izan ere, bertan ardazketa eta emakumearen sexualitatea elkarri lotuta dauden bi elementu bezala aurkezten dira eta Burunda bailarako adibideak jartzen dira horretarako: «Emakumeen inimizazio-proben artean, irutearen eta sexualitatearen arteko harremana oso argi agertzen da euskaldunen kultura-tradizioan, interpretazio sinbolikoaren joko korapilatsura jo beharrik gabe. Hain zuzen ere, badira datu etnografikoak, historikoak, iruleak portaera erotiko jakin batzuekin lotzen dituztenak» (Hornilla, 1989, 109. or.).

Santa Ageda berriz iten gendubén... bi aldiz eskatzen zan, gaubon Santa Ageda egunín eta Santa Ageda bezperan. Eta zer Santa Ageda uréitzen¹⁴ gendúbela guk... ematen zéin etxe batin maiz buru bat bestin bi... bestin ez dakit zer... hola! Gio etxiaa fan haik yakúrrí¹⁵ eta saltzia, diruba hartzeko. Hura gaubón gaubín, hainbeste in dot... Santa Agedan beste zerbeit... (...) mutilak Santa Ageda egunin dantzaa zerakin... ttuntunakin¹⁶ dantza... bi jota jo, ta gu ere, uréi gendubén¹⁷ (Oiharbide eta Etxeberria, 1986).

Horrela, Urdiain eta Altsasu herrietako adibideak ematen ditu. Neguan zehar, neskatoek eta mutikoek ardazketaren aitzakiarekin bilkurak egiten zituzten herriko etxeetan zehar, orduak irauten zuten festak bertan eginez, koplak erotiko edo lizunak kantatuz, bi sexuen arteko elkarketa fisikoarekin batera. Aitzakia hau, bi sexuen arteko

9. Zegubéin: ziguten. 'Zugubien' Sakana erdialdean (Etxarri Aranatz).

10. Dantzaa: dantzara.

11. Inazitzen: eginarazten.

12. Yaten: yan aditza. 'Yaman' aldaera, 'eraman', 'eroan'.

13. Ezkatzin/ezkatzien: ezkaratzean. Ezkaratza: atondo, ataria (*recibidor*, *zagúan* erdaraz).

14. Ureitzen: urei/urái > edugi > udegi (metatesia) > uregi (d/r txandaketa) > urei (bokal arteko belar herskari ahostunaren galera) > urai (ei > ai diptongo-irekiera («Erizkizundi irukoitza Sakana erdialdean» artikulua).

15. Yakurri: aletu, bikorri, bihitu aldaera.

16. Ttuntunakin: txistua eta danbolinarekin.

17. Genduben: genuen.

elkarretaratzeak egiteko baliatzen zen eta elizak askotan bilera haiek debekatzeko saiakerak egin zituen, 1816. urtean jasotzen den bezala eta Satrustegik bildua: «Herri guztietan nahasmena eragiten zuten bi sexuen arteko elkartaratzeak, gaueko ezorduetan haien arropak aldatzen zituztelarik. Autoritateei eta justiziei eskatzen zieten galbide hura moztu zezaten berandu baino lehen» (*id.*).

Kíntuk iten zein Santa Ageda, etortzen zian nasakiyéin¹⁸ etxea ataien dantza ezba? Han barruban kuadrila iten gendubén, bilatzen genduzén¹⁹ kuadrila iteko ezkat²⁰ haundia zoon²¹ etxí, gue aman etxin ederrik aldiz in dei²²! Dantza barruban (...). Bai! Faten²³ zian... eguno ez zengaiti lana iteko... baya... ostegunín da lanbatín, faten zian. Guk danbori esaten duau²⁴ *pandereta*... eta jende gehio hura jo ta kántau ta dantza danboriarrekin. Gaurko musiki patzen gendubén zer musiki zekizkiéin²⁵ kantákan hura... hola ibiltzen gindan dantza ta nie laguna Margarita, lagun haundia, dantzako laguna hura zan, barridekok gindán... ikas zen nunbáitin erdiáz da... Béti!: ¡A ti te digo Martina, y ya lo puedes creer... A ti te digo Martina, que ese chico que tú bailas cada vez te quiere mas!... [jota doinua]. Hori beti esaten genduan danáiri, ikas zen hura nunbaitin da erdiáz ez gendakien da... Gio mutikiak hasi zian filarmonakin... haik ikas zein pixkat haunditu gindanin agarrauek jotzen ikas zitubéin!... Ez zan jéndi tontu e!... (Oiharbide eta Etxeberria, 1986).

7. Festako janzkera, elementuak eta horien aldaketak: jatorrizkoa, identitate lokala-nazionala, indibiduala eta komunitatea

7.1. Jatorrizkoa

Festa ezagutarazteko asmoz, hainbat elementu dituen jaia da: kintoak era berezian jantzen dira: zuriz eta zapiak jartzen dituzte soinean, lau zapi guztira: horietako bi aurretik eta atzetik jartzen dituzte eta beste biak gurutzaturik. Gurutzatuta daukan zapi bat dantzara gonbidatzen duen neska ateratzeko erabiliko du geroago. Zapien erabilera eta kopurua aldatu da; izan ere, lehen bi soilik erabiltzen ziren (gurutzatuak direnak) eta orain, berriz, lau. Atzeko zapia zuria izaten da eta handi samarra eta aurrekoa berdea. Biek sinbologia eta brodatu desberdinak dituzte kintoaren arabera, baina atzekoa normalean eta gehienetan, kintoraren bi abizenak izaten dira, ezkutuekin. Horrek herriari zer familiatakoa zaren erakusten dio. Elkarriketatu zaharrenek esan zidatenez, hori lehen ez zen egiten eta ez dakite ohitura hori noiz sortu zen, argi dagoena da norbaitek hasi zuela eta gaur egunerarte iraun duen zerbait dela.

Kintoak eta haien familiak prestatzen ari dira beste urtebetez adin-nagusitasunera iristen diren mutilak, bost egunez, gizarte-bizitzaren protagonista izan daitezen, horretarako jantzita. Horrela lau zapi zurirekin jantziko dira, bi bular gainean

18. Nesakiyéin: neskatoen, nesakien.

19. Genduzen: genituen.

20. Ezkat: ezkaratza: etxe-atarietan dagoen espazioa. 'Recibidor, zagúan'.

21. Zoon: zegoen.

22. Dei/Dai: dute.

23. Faten: joan > goan > gan(bazt., lap.) > foan > fan aldaera (gip., bizk., gnaf., aezk., zar., erronk.). Ganix, Fanix, Maya, Fana (Burundan) izenak. Aldaeren lurraldetasuna, Euskaltzaindian begiratu, izenen inguruko datuak memoriaz.

24. Duau: diogu/ diegu.

25. Zekizkiein: zekizkiten.

gurutzatuta eta beste bat aurrean, lepotik zintzilik, berdea izango dena, Siziliako santu honen kolorea. Honakoa, motibo ezberdinekin brodatua egon ohi da eta horien artean, plazako kioskoa eta momotxorroaren irudia nabarmentzen dira. Laugarren zapia zuria da, eta brodatuta dago ere, oraingoan kintoaren abizenen armariarekin (Diario de Noticias, 2004).

Horretarako *Guaixe* astekarian 2009. urteko «11 galdera» sekzioan Katali Uribe brodatzaileari eginiko elkarrizketan zenbait gako eskuratu ditzakegu berari egindako galderetan. Katali 11 urterekin hasi zen brodatzen mojetan eta gero herriko beste brodatzaile batekin joan zen ikastera. Geroago berak tailerra jarri zuen, baina ezkontzerakoan utzi behar izan zuen, ordutik etxean aritzen zen eskuz eta makinaz egindako lanak uztartuz. Santa Ageda zintak herriko jendearendako 14 urte aurretik hasi zen egiten eta soilik urte batez utzi dio lan hori egiteari, gaixoak zituelako etxean, berarentzat sekulako «bizioa» dela dio (Guaixe, 2009). Katalik elkarrizketan dioen moduan: «Lehen, Altsasuko armaria, kintoa eta danbolinaz gain, gainontzeko zinta guztien loreak brodatzen zituzten. Oso koloretsuak ziren. Ikurrinak ikusten hasi zirenean ikurrina, lauburu, Arrano Beltza eta gainontzeko motiboak egiten hasi ziren mutilek eskatuta. Eta egun, ohiko irudiez gain, denetarik egin izan duela dio, muskerrak eta guzti» (Guaixe, 2009).

Gaur egun, atzeko zapia eta gurutzatuak mutikoek zein neskek eramaten dituzte. Aurrekoa eta berdea dena, aldiz, soilik mutilek. Gehienetan Euskal Herriko sinboloak bilakatu direnekin zerikusia daukatenak jartzen dira bertan: eguzki-loreak, lauburuak, Euskal Herriko mapa, Nafarroako kateak edo bestelako batzuk. Esan beharra dago, gaur eguneko iruditegi guztia oso abertzalea izan daitekeela; izan ere, lehen ez zela horrela jakinarazi didate. Makiletako zintetan gehienetan loreak eta koloretako zintak agertzen zirela aipatzen dute, eta horrek logika dauka; izan ere, neguko solstizioarekin lotura daukan erritu bat izanda udaberria gertu dagoela gogorarazten digute loreek. Beste zintekin batera ere, kintoaren izena eta beraren Santa Ageda data (zein urtetan egiten zuen) jartzen zen eta harenganako animo esaldiak edo oparitu zizkionaren izenak. Adb: Aupa Joxe! eta horrekin batera hanka altxatzen dagoen kinto bat; beste bat: *De tu hermana Koro con cariño* eta abar; izan ere, 60ko hamarkadako elkarrizketatu batek esan bezala neska kintoak hasi ziren horren ardura hartzen tailerrak desagertzen zihoazelako: «Antes hacían las modistas pero ya en mi quinta empezamos nosotras a hacer, porque ya los talleres iban desapareciendo. Joxe: Bueno tuvisteis.... se pedía. Lógicamente querían participar, lo que pasa que era una sociedad tan sumamente cerrada que las mujeres no tenían cabida ¿entiendes? Es la mentalidad igual que la mentalidad que tenían que hacer Santa Águeda sólo los de Alsasua, ¡jojo eh! no viviendo, bueno había dispaes...» (Herrero Beramendi, 2019).

Hala ere, jai honen elementu bereizgarria Santa Agedako makila da, agintemakila (...) Altsasun, korosti-egurrezko makila (gorostia) moduko bat da, eta, horren gainean, zinta gorri, berde eta zuriz eta zetazko sei zintaz (normalean brodatuak) apainduta daude. Horri buruz asko daki Katali Uribek, mende erdi baitarama lan hori egiten. Bost hamarkada hauetan, gizartearen aldaketen lekuko izan da, eta hori makilan nola islatu den ere bai. Elementu hori lehen egunean bakarrik ikusten da, baina hori gabe kinto bat ez da guztiz kinto (Diario de Noticias, 2004).

7.2. Identitate lokala-nazionala

Garai bateko gorosti-makil zaharrenak behatzen badira, XX. mendearen hasierakoak eta 40ko hamarkadakoak ez dira berdinak; koloretako bolante eta zintez osaturikoak ziren gehienak. Geroago, irudi lokalak agertzen hasi ziren: intxaurrondoa eta kioskoa batez ere. Geroago, frankismoaren ondoren, bestelakoak agertzen hasi ziren: nazionalak, identitarioak, etab. Santa Ageda festa Euskal Herri mailan ere dezente errotuta dago eta askotan erlijiosotasunetik aparte, izaera nazionala bereganatu duen festa da. Horrek argi erakusten du euskalduntasuna bere adierazpen guztietan azaltzeko festa bat dela, batez ere, frankismoaren gainbeheraz geroztik, baina makiletako koloreetan islatuta ere: berdea, gorria eta zuria. 80ko hamarkadatik aurrera bestelako irudiak agertzen hasi ziren, festarekin zerikusi handirik ez zutenak; izan ere, Katalik, beste festa batzuen gaineko ikuskera eta testuinguru batetik etorria, ez ditu zenbait apaingarrien arrazoiak ulertzen.

Urte askotan zehar, loreak ziren motibo nagusiak: arrosak, krabelinak, jazintoak eta abar, Altsasuko armarrria, dirua daraman astoa, kinto bat zortzikoa dantzatzeko edo plazako kioskoa ere bai. Franco hilda, zinten marrazkiak aldatzen hasi ziren, eta ikurrinak, Euskal Herriko armarrriak eta lauburuak agertu ziren. Ondoren momotxorroak eta sorginak etorri ziren, eta azken urteetan gaztetxearen ikurra eta marihuana-orriak, besteak beste. Diseinu propioak ere ez dira falta, hala nola motor baten kaskoa. Katalik ez ditu motibo horiek ulertzen, baina gustura brodatzen ditu, nahiago baitu marrazkiak eginda ekartzea (Diario de Noticias, 2004).



1. irudia. 60-70eko hamarkadako loreen apaingarriak.

Argazkia: Julen Herrero Beramendi.

7.3. Indibiduala

Irudi horiek aldakorrak izan dira eta pertsona zenbaitek «instituzionalizatu» egin dituzte ohiko bihurtu arte, baina batzuk festaren eraldaketarekin batera agertzen hasi ziren.

Momotxorroa adibidez 80ko hamarkadan berreskuratu zen inauterietatik dator, astoa hasieran ez zen erabiltzen, kintoek zakua gainera eramaten zuten eta abar. Apaingarriekin jarraituz, neska-lagunik ez zeukan kintoari arrebak edo amak egiten zizkion zintak; izan ere, jakinarazi didatenez makilaren egitekoa askotan neska-lagunaren zeregina zen. Horrek zentzua edukiko luke, izan ere, lehen brodatzen eta josten zekiten gutxienekoak emakumeak izanik, haiek lan hori egin zezaketen bakarrenetarikoak ziren. Gaur egun bi edo hiru emakume daude herrian horretara dedikatzen direnak, aipatutako Katali haien artean. Baten bati amonak egiten dio edo familian aurrez egindako zintak hartzen ditu ordean. Hori ere ohikoa da, aitaren edo aitonaren makila edo zintak hartzea. Birziklatu egiten dira, izan ere, lehenengo egunean soilik ateratzen da makila eta diru asko balio duten apaingarriak dira, eskuz eginda baitaude.

Kattalin Uribe gaian aditua da. Lau hamarkada baino gehiago zintak brodatzen eman ondoren, motiboetan izan diren aldaketen lekuko da: «Orain gehien eskatzen dena Altsasuko eta Euskal Herriko armarriarekin batera, momotxorroa eta astoa dira. Lehen, loreak brodatzen ziren gehienbat» (...) zinta bakoitzeko 23 euro inguru kobratzeko asmoa du, sei ordu baino gehiago inbertitu ondoren, eta horri, hariak batu behar zaizkio «que corren que se matan». Horrek dakartzan gastuez jabetuta lehenengo zinta bakarrik pertsonalizatzea gomendatzen du, makila beste bostak aldatu gabe transmititu ahal izateko (Diario de Noticias, 2004).



2. irudia. XX. mendearen hasierako kintoak.

Argazkia: Isa Gastaminza.

Gorosti-makilak ere prozesu bat behar du zuzen jartzeko eta inguruko mendietan hartzen da, gaur egun debekatuta dagoen arren, Santa Ageda baino lehen kintoak izango direnen senideek edo kintoek berek hartzen dituzte makila prestatzeko. Horrek konponketa eta apaintze batzuk ere baditu, beheko aldean iltzeak jartzea eta goikoan larruzko heldulekua, esate baterako. Makila baita, bidez iruditegi lokala eta supralokalari erreparatu ahal diogun elementua.

Horretaz gain, gaur egun ohikoagoa da kintoari gustatzen zaizkion edo «irudikatzen» duten beste elementu batzuk agertzea. Adibidez, saskibaloiko jokalaria bada, saskibaloiko pilota bat edo klubaren izena jartzea, edo errealezalea bada, talde horretako ezkutua agertzea. Makil bakoitzak kintoen artean komunak diren elementu batzuk ere biltzen ditu, kintoa «errepresentatzen» duten beste irudi batzuk agertzen dira bertan, eta horrek izaera pertsonala ematen die makileei, haien zaletasunak edo gustuak islatzen baitituzte edo bizitako esperientziek markatu duten zerbait.

80ko hamarkadaz geroztik, aipatu bezala, bestelako elementuak eta sinboloak ikus ditzakegu, askotan kintoen bizitzarekin zerikusia dutenak: zaletasunak, hildako pertsonen brodatuak, esperientzia bitalak, etab. Herriko astekarian bildutako argazkien artean honako adibideak dauzkagu: pelutxezko hartz bat, trikitixa eta panderoa, San Migeleko santutegia, Sydney-ko opera, etab. Bestelakoek irudi abertzaleak eta lokalak dituzte, baina beste zenbaitek ez dute zentzurik festaren testuinguruan, ezpada kintoa irudikatu/definitu edo zaletzen duten elementuak agertzen badira. Horiek esanahia desberdinak dituzte kinto bakoitzean eta gehienetan irudi afektiboak dira: kinto bakoitzaren arabera.



3. irudia. 2019ko kinto bat Sydney-ko opera brodaturik.
Argazkia: Guaixe.eus

7.4. Zendutakoak brodatuetan eta komunitatea

Azkeneko «irudi afektibo» horiek, hildakoak presente dauden festa ere bada, ez soilik hilerrian egiten den lore-eskaintzan (batez ere helduagoek eginda) edo zenbait

omenalditan (euskal presoena, kinto batena), baizik eta janzeran ere islatzen dira. Aitzpea Leizaolak San Telmon emandako hitzaldi batean esan bezala: komunitate barrura begiratzeko festak dira negukoak (inauteriak, *Halloween* edo Arimen Gaua, Gabonak, etab.) horiek komunitatea zeinek osatzen duten erakusten dute, batez ere komentsalitatearen eta puska-biltzen bitartez; parte-hartzaileak etxez etxe doaz eta auzotarrak zeintzuk diren birgogorarazten dute etengabe. Horrela, gure Santa Ageda urtean adibidez, hildako kintako mutiko baten zapia egitea proposatu zen eta hura eraman egin genuen beste zapiekin batera. «Zurekin dantzatzen dugu lker» zen leloa eta kolore urdinekoa zen, beste alde batetik, gurasoei agurra dantzatu genien etxe behean eta lore sorta eskaintza egin genien. Beste urte bateko (2022) argazkietan, kinto batek osabaren aurpegia brodatua darama aurreko zapien, beste zapi batekin batera (beltza eta letra horia) hauxe dioena: «Bro sin ti esto no es lo mismo. SE REMONTA».

Haren anaiak ere, Santa Ageda egunean (2018), zapi bera eraman zuen aurretik, Benigno Mendiaren aurpegia duena. Benigno Mendia osaba izateaz gain, bailarako herri-mugimenduan zein ikastolenean oso aktiboa izandako pertsona da. Nafarroa Oinezeko paella erraldoiak prestatzen eta bailarako herri-bazkari askotan ibilia. Haren zapiaren leloak honela dio: «Ez ga hobenak izanko bia txarrenak ezta» Beningok zioen esaldi bat da.

Beste aldetik, hainbat motatako zapiak eraman ohi dira batzuetan kinta bereko kideak oroitarazteko, Altsasuko auzia zela-eta 2017ko kintoek «Utzi Altsasu Bakean» koadrodun zapia eraman zuten, 2018koek ere «Altsasukoak aske» leloa zuen zapia eraman zuten, edo bestelako anekdota bat gogorarazten duten pasarteek islatzen dutena: *La quinta del carrico* izenez ezagututakoen urtekoek 25. urteurrenean zapien karrotxo bat brodatzea, adibidez. Zapiak eta brodatuak, talde-identitatea eta identifikazioa sustatzeaz gain, memoria-eragile bat dira; izan ere, anekdota bat gogorarazten dute, baina beste alde batetik, ez daudenak ere (hainbat arrazoiengatik: kartzela, heriotza, etab.) *gurera* ekartzeko eta *presente* egiteko modu bat dira.

Guaixe: 10. urte hauetan kintoak asko aldatu dira?

Katali: Lehen kintoek askoz gehiago eskatzen zuten eta zortzikoa bukatzen zenean dena despeditzen zen eta plazan giro ederra izaten zen. 62. urtean neskak mutilekin kafea hartzen hasi ziren. Ni 61ekoa naiz. Gero 25. urteurrenean neskak eta mutilak batera bazkaltzera joan zen lehenengo kinta nirea baino aurreragokoa izan zen, eta guk ere batera ospatu genuen 25. urteurrena. Ordutik urtero batera goaz bazkaltzera. Pentsa, lehen soilik Altsasun jaioak zirenek ospatzen zuten festa, Extremaduratik etorritakoek eta besteek ez. Nire kintan hasi ziren ospatzen. Eta neskak duela 22 urte inguru hasi ziren janzen (Guaixe, 2009).

Hala ere, pertsonak objektu horiei izaera bat edo beste eman diezaieke. Sinbolismoa objektuetan dago eta ekintza edo portaera sinbolikoan batik bat. Bukatzeko, Altuna eta Ozaitak (2022) *Ankulegi* aldizkarian Halloween festaz diharduen artikuluan, bat egiten dute beste antropologo baztuek diotenarekin (Aitzpea Leizaola, Maggie Bullen, Beatriz Moral): festak ez direla parentesi hutsa, baizik eta pil-pilean eduki sinbolikoz kondentsatuak, emozio sakon eta komunitateko gauza jakinen ezaugarriak nabarmen islatzen dituzten uneak.

Festaren gorputz-memoriaren alaitasuna, norbanakoa nahiz kolektiboa, osagai nagusia izaten da maiz: afektuak, aliantzak, konplizitateak, eta dantza. Subertsioz ehundutako harremanak eta gorputzak gara festetan. Baina festa, negarra begitik daraman tenpesta izateaz gain, minerako parada ere bada. Hauxe paradoxa. Izan ere, festa ez da sozietatetik aparte dagoen zerbait, sozietaterik gabe ez baitago festarik. Pozaz gain, gatazkak eta minak ere azaleratu, nahastu edota irudikatu egiten dira festetan. Kultur (sistemen) adierazpen ahaltsuak direnez gero, jendarte, herri, talde edota komunitate jakinen ezaugarri guztiak islatzen dira haietan (Guillo, 2016, 7. or. in Altuna eta Ozaita, 2022, 27. or.).

Apaingarrien sailkapen bat jarraian:

1. taula. Apaingarrien sailkapenaren taula.

LOKALAK	Intxaurrondoa, kioskoa, herriko ezkutua, elizako kanpai-dorrea, momotxorrea, etab.
EUSKAL IDENTITATEA + IDENTITATE NAZIONALA	Ikurrina, Arrano Beltza, Euskal Herriko mapa politikoa, lauburuak, eguzkiloreak, amnistiaren ikurra, Nafarroako kateak, etab.
SANTA AGEDAREN TESTUINGURUKOAK	Gorosti-ostoa, loreak, mutil kintoak eta neska kintoak elkarrekin dantzan, txistua eta danbolina, astoa, tortak, ardo-pitxerrak edo zahatoak, etab.
INDIBIDUALAK	Motorrak, futbol-ezkutuak, balleteko zapatilak, txakurrak, musika-klabeak, olinpiadetako uztaiak eta igerilariak, pelutxezko hartzak, Sydney-ko opera, etab.



4. irudia. Kintoak hainbat apaingarrirekin, Benignoren aurpegia eta horiz esaldia.
Argazkia: Guaixe.eus.

8. Ondorioak

Beraz, jantzien eta brodatuen bidez, haiek kintoei buruz ematen diguten informazioa ikus dezakegu. Alde batetik, filiazioa: herriko noren seme-alabak eta fami-
lietako kideak diren (atzealdeko ezkutuak), eta, bestetik, afektibotasun indibiduala:
zaletasunak, esperientzia bitalak, galerak (zendutako pertsonen oroigarriak),
sozializatzeko modua dira. Izan ere: «Bizitza eta heriotza, gorputzari dagokion guztia
bezala, giza gizarteen unibertsaltasunean, zeremonia-objektuak dira. Jarduera erri-
tualak banako edo taldeko existentziaren mutazioaren une garrantzitsuetan garatu
ohi da, eta gure emozioetatik sortzen da» (Allué, 1998, 69. or.).

Aldaketa horiek jantzietan 80ko hamarkadatik aurrera egiten hasi ziren eta
azkar «instituzionalizatu» dira, Santa Agedako «ohiko» janzkera bihurtuz. Jatorrian:
zintak, loreak (eguberriko ekinozioarekin zerikusia duen erritua baita) eta sinbolo
lokalak irudikatuz (komunitate lokalekoak: elizako kanpai-dorrea, kioskoa, plaza,
intxaurrondoa). Honen guztiaren gainean, gizartean egondako aldaketa presente
dago eta banakotasunera jotzeko joera. Arlo materiala eta jantziak ere izan dira
aldarrikapenerako eroaleak, bi adibide ikusten baditugu: neskak kaxera jantzen hasi
ziren 80ko hamarkadan festan *ikusgai* bihurtzeko, praktika hori orokortuko delarik,
eta bestetik, 2017ko kinto bati bildu moduan, bere egoera salatzeko eta protesta
egiteko, gona jantzi zuen azken egunean, ahalduntzeko mekanismo bezala ere.

Apaingarri horiek egitera dedikatu diren emakumeak hasiera batean asko ziren
eta geroago haien presentzia gutxitzen joan zen. Jatorrian negua pasatzeko etxeetan
biltzen ziren eta arratsaldeak dantzan, kantan eta kontu-kontari igarotzen zituzten.
Mutil kintoak ziren bisitan joaten zirenak eta haiek askaria edo bazkaria eskaintzen
zieten. Lehendabiziko testigantzetan ikusi bezala, honela zioen informatzaile batek:
«Orduban asko gindan baya!... geo gutxitu zan jendi!... ta kendu zian lan hoiek.
Geó kuadrílli itén genduben, lana fáteko, batzuk ardazketá, beste batzuk puntilla
itea, eta faten ginan negúban etxe batea, faten zian mutilak gitarri ta akordeonakin,
faten zian dantzaa (...) ta geo udan etxeko andrik, faten ginan etxeko andrik, egun
batín, yaten según jorraa, jorratzea. Ta lan asko iten zen, harekin (Oiharbide eta
Etxeberria, 1986). Etxekoandre hura lekua jartzen zuena zen eta emakume helduak
edo zaharrak izaten ziren, nolabaiteko autoritate edo «erle erregín» izaera zeukaten,
nahiz eta gorago hierarkiarik ez zegoela aipatu. Trukean emakume horren soroak
jorratzen ziren udan.

Geroago lan horiek tailerretara pasa ziren (20ko hamarkadan) eta ondoren neska
kintoetara igaro zen zeregina. Gaur egun, neska kintoak ez dira zintak brodatzera
dedikatzen, nahiz eta badauden kasuak, haien zapi propioak apaintzen dituztenak.
Aldiz, badaude horretara dedikatzen diren bizpahiru emakume eta bestela kinto
bakoitzaren amonak, izebak edo amak egiten dizkio apaingarriak, edo oinordetzan
jaso batzuk, geroz eta dirutza gehiago bideratzen baita apaingarrietarako, batez
ere nesken kasuan, soineko bat baino gehiago egiten dutelako. Honela esan
zidan elkarrizketatzaile batek: «Antes hacían las modistas pero ya en mi quinta
empezamos nosotras a hacer, porque ya los talleres iban desapareciendo. Joxe:
Bueno tuvisteis.... se pedía. Lógicamente querían participar, lo que pasa que era

una sociedad tan sumamente cerrada que las mujeres no tenían cabida ¿entiendes? Es la mentalidad...» (Herrero Beramendi, 2019).



5. irudia. 2012an zendutako kinto baten oroigarria.

Argazkia: Beltzane Gómez.

Beraz bukatzeko esan dezakegu, gure testuinguruan gorago aipatu bezala, arreo prestatzeko egiten zen ardazketarekin, baina baita negu aldean egiten ziren bilerekin ere, garaiko emakume eta gizonen bizitza sozio-afektiboaren bi aspektuak elkarrekin lotzen zirela. Garai batean, haien bidez, erlazioak mantentzeko bi modu erabat kontrajarriz baliatzen baitziren: batetik, elizaren aldetik hain gaizki ikusiak zeuden ezkontza aurreko harremanak mantendu ahal izatea, eta, bestetik, etorkizunean erabat formala eta sozialki ondo ikusia zegoen ezkontza aurrera eramanez ahal izatea. Esan genezake, emakumeentzat batez ere, irutea eta haria esanguratsuak izan direla haien bizitzan; izan ere, harilkatzen jakitea haiei ezartzen zitzaien zeregina baitzen eta garrantzitsua, geroagoko arreo prestatu ahal izateko, besteak beste. Antzina, aldiz, ardazketa, gorueta edo irutea, aurrez aipatutako bi ekintza dikotomiko horiek: ezkontza aurreko harremanak vs ezkontza ondorengo harremanak mantentzeko tresna bat izan dira, bi sexuendako giltzarria izanik; alde batetik, izaera subertsiboa eta bestetik araututa izan dituzten ekintzak burutu ahal izateko.

Horretaz gain, emakumeen sozializazio-, asoziazio- eta endokulturazio²⁶-ekintza izan da hari artean ibiltzea, hala nola kultura-transmisio eta ospakizunak barnebiltzen zituen, gaur egun desitxuratu edo galdu delarik. Erritu horiek emakumeak espazio pribatura eta etxe-sartzeetara bideratzen bazituzten ere, nolakotasun bat ematen zieten «identitate femeninoa» sustatuz, nahiz eta gaur egun ekintza horien gutxiestea, baliogabetzea edo beste irakurketa bat egin daitekeen (emakume sumisoak, etxekoandreak, etab.), Santa Ageda festaren erro garrantzitsua ziren: jatorrian emakumeen bilkura hauek baitziren festaren «bihotza» eta ospakizunen egutegiaren barnean nagusitasuna eskuratzen zuten egun bakarrenetarikoak. Bere etxean neskatoak hartzen zituen aipatutako andre nagusiaren figura izan daiteke autoritatezkoa edota mentore moduan (*ikusi eta ikasi* txikiak handitik ikasi ohi du); neskatoek harilkatzen helduagoekin ikasten zuten familiako emakumeekin edo auzokoekin, eta bitartean bizitzaren sekretuak, aholkuak, kontuak (ipuinak), herriko gertaerak eta abar partekatzen zituzten; giza harreman baten barnean ematen diren dinamika ohikoak dira hauek, hala ere, data berezietan egiten ziren elkarketa bereziak, eta horietan agian, antropologikoki interesgarriak izan litezkeen ekintza erritualak gerta zitezkeen, egunerokotasunetik eta etxeko lan arrunt batetik haratago.



6. irudia. Emakumeen joste-lanak.

Argazkia: *Gonbidatuak izatetik protagonista izatera* dokumentala, Youtube.

Izan ere, gorago aipatutako Frontisi-Ducroix eta Itzel Casillas Avalos irakaslearen artikulua gogora ekarriz: «Ehuntzea eta ehungailua bi arrazoirengatik da ahots femeninoaren espazioa: ehungailuaren barnean, etxeko emakume kopuru erdia edo gehienak; alabak, neskameak eta haurrak biltzen dira lan egiten duten bitartean, abesti ederrak abesten dituzten tokia da. Laburbilduz, ehungailua da etorkizuneko

26. Endokulturazioa: gizabanako batek bere gizarte edo taldeko kultura bereganatzeko prozesua da. Hizkuntza, balioak, sinesmenak eta bestelako elementu kulturalak eskuratuz. Prozesua, familiaren baitan eman daiteke, eskolan edo beste erakunde sozialetan eta kultura transmisiorako mekanismoen bitartez (Gizapedia, 2024).

herritarrei kultura-ondarea transmititzeko tresna. Eta transmisio hori emakumeen ahotsaren bidez egiten da; poetek hezkuntza-funtzio horretan lekukoa hartu baino askoz lehenago» (Frontisi-Ducroix, 2006, 240. or. in Casillas Avalos, 2022). Horretaz gain, Txinako *nu shu* brodatuak mezu sekretuak helarazteko edota Sofoklesen «Filomelaren mitoak» erakusten digu hizkuntza honen iraupena kulturen eta historian zehar, protagonistak, ekintza honen bidez lortzen baitu gertatu zitzaiona komunikatzea. Beraz, brodatuak ere, emakumeen ahotsa eta kultura, artea, pentsamenduak edota mezuak adierazteko modua izan dira. Zentzua bilatuz, ez da komunikatzeko erabiltzen zutela modu hertsian, horretan eguneko zati handi bat ematen zutenez, eta haiei ia eskusiboki zegokien zeregin bat zenez, hura baliatu zuten komunikatzeko ere; inguruan (esku artean) zeukatena erabiltzen zutelarik, egoera ezarri horretaz probestuz.

Nahiz eta brodatuak jarraitu, gutxitzen joango direlako ustea daukat, zintak margotzea geroz eta ohikoagoa bihurtu delarik. Beste batzuei, agian, amak edo amonek egiten dizkiete zintak, brodatzearen jakintza gutxitzen doalako; adin nagusiko emakumeak dira gehienbat honetan oraindik trebatu daitezkeenak. Brodatzearen jakintza generazionala izan daitekeela soziologikoki aztertzen badugu. Emakume (eta gizon) gehiago horretan tratatzen ez badira desager daitezkeen ekintza izan liteke. Hala ere, festaren aspektu hau eraldatu daiteke, margolanak nagusitasuna irabaziz eta brodatuak alde batera geratuz. Izan ere, Katalik esan moduan, «dirutza bideratzen da apaingarrietan» eta bakoitzak berea eginda zertxobait aurreztu daiteke, nesken kasuan herrian dauden mertzeria eskasek lana bikoizten dute eta urte osoko denboraldi mugituena da, geroz eta ohikoagoa delarik soineko bat baino gehiago izatea eta pertsonalizaturik. Gure amaren kasuan, *kaxera* janzten ziren lehendabiziko kinta izanik, askok mertzerietan zeudenak hartzen zituzten (gipuzkoar erakoak) edo ezagunek uzten zizkieten, gaur egun ahizpen artean zenbaitetan soinekoak elkarrekin banatzen badituzte, eskusibitatea nabarmentzen da gehienbat, hau da: bakoitzak bere soineko propioak dauzka eta ez dira normalean elkarrekin banatzen. Momentuz geratzen diren bizpahiru emakume horiek prest egonez gero eta gogoia izanez gero, iraunen dute apaingarriek (negozioa eta diru-iturri da haiendako, Katali duela urte batzuk hil zen, bera izan da herriko brodatzailerik esanguratsuenetarikoa). Haiek egiten dituzten esku-lan hauen bidez Santa Ageda festaren beste elementu batzuek (jantziak, apaingarriak) aurrera jarraitzea baliotzen dute, festa horiek gabe ez bailitzateke gauza bera izango. Haiei askotan, berriz, ez zaie behar bezalako aitortza eta garrantzirik eman eta artikulua festaren protagonista horiek mahai gainera ekartzeko ahalegina da.

Bibliografia

- Allué, M. (1998). La ritualización de la pérdida. *Anuario de Psicología*, 29(4), 67-82. Facultat de Psicologia, Universitat de Barcelona.
- Araolaza, O. (2020). *Genero-identitatea euskal dantza tradizionalaren eraikuntzan* [Dokortesia, UPV/EHU]. https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/51207/Tesis_Oier_Araolaza_Arrieta.pdf?sequence=1&isAllowed=y
- Aretxaga, B. (1988). *Los funerales en el nacionalismo radical vasco*. Baroja.

- Altsasuko Bilgune Feminista (2014). *Gonbidatuak izatetik protagonista izatera* [liburuxka, editorialik ez].
- Azcona, J. (1984). *Etnia y nacionalismo vasco. Una aproximación desde la antropología*. Anthropos.
- Caro Baroja, J. (1979). *El Carnaval: Analisis historico cultural*. Taurus.
- Gennep van, A. (1986[1909]). *Los ritos de paso*. Taurus, 20-35. eta 178-200. or.
- Herrero Beramendi, J. (2019). 60ko hamarkadako Altsasuko kinto biren elkarrizketa.
- Hornilla, Tx. (1989). *La mujer en los ritos y mitos vascos*. Txertoa.
- Jimeno Jurío, J.M. (1974). *Alsasua*. «NAVARRA, temas de cultura popular» bilduma, 196, Nafarroako Foru Diputazioa.
- Jimeno Jurío, J.M. (1974). *Folklore de Alsasua*. «NAVARRA, temas de cultura popular» bilduma, 196, Nafarroako Foru Diputazioa.
- Juliano, D. (1992). *El juego de las astucias*. Horas y Horas.
- Larrinaga Zugadi, J. (2003). *Sakanako Folklore*. Eusko Ikaskuntza.
- Montesino, A. (1992). *Las marzas: rituales de identidad y sociabilidad masculinas*. Editorial Límite.
- Ortner, S. (1972). Is Female to Male as Nature is to Culture? *Feminist Studies*, 1(2), 5-31. Berrikusia eta berrinprimatua: Michelle Rosaldo eta Louise Lamphere (argtz.), *Woman, Culture and Society*. Standford University Press.
- Turner, V. (1988[1969]). «Liminalidad y Communitas». *El proceso ritual*. Taurus, 101-156. or.

Webgrafia

- Aleixandre Brian D (2012). La antropología de la muerte: Autores, enfoques y períodos. *Sociedad y Religión: Sociología, Antropología e Historia de la Religión en el Cono Sur XXII*, (37), 206-215. <https://www.redalyc.org/articulo.oa?id=387239042007>
- Altuna, J. eta Ozaita, J. (2022). Heriotzaren trikimailua eta tratua. *Ankulegi*, (23), 13-30. <https://aldizkaria.ankulegi.org/index.php/ankulegi/article/view/127>
- Andra Mari Dantza Taldea (2011). *Santa Agedak Altsasun* [PDF Online]. https://www.andramaridantzataldea.net/wpcontent/uploads/2015/06/Sta_Ageda_bezpera_Altsasu.pdf. Azkue, R.M. (1935). *Euskalerriaren Yakintza*. Espasa-Calpe. <https://bvpb.mcu.es/es/consulta/registro.cmd?id=412303>
- Casillas Avalos, I. (2022). Tejido y texto: actualidad de un entramado de relaciones. *Revista EDUCA UMCH*, (19), 117-128. <https://doi.org/10.35756/educaumch.202219.209>
- Erdozia Mauleón, J.L. (2000). Erizkizundi irukoitza Sakana erdialdean. *Fontes Linguae Vasconum*, (83), 53-72. <https://doi.org/10.35462/flv83.4>
- Gallo, I. (2022). Tejido, escritura y amistad entre mujeres. *Letras Libres*. <https://letraslibres.com/revista/tejido-escritura-y-amistad-entre-mujeres/>
- García-Orellán, R. (2004). Manifestación del ethos cultural vasco ante la muerte violenta de Aitor Zabaleta. *Zainak* (26), 745-762. <https://addi.ehu.es/bitstream/handle/10810/8591/26745762.pdf?sequence=1>
- Gizapedia (2024). Enkulturarazioa. <https://gizapedia.org/enkulturarazioa-endokulturarazioa/>
- Joan (2025). *Euskal Hitzegi Historiko-Etimologikoa, EHHN-200*. https://www.euskaltzaindia.eus/index.php?option=com_ehhe&task=hiztegia&Itemid=1193&lang=eu&sarrera=joan
- Leizaola, A. (2022ko azaroaren 11). *Ohitura zaharrak eraberritzen? Neguko festak pandemia testuinguruan, Aranzadi Etnografia Jardunaldiak I* [Bideoa]. Youtube. <https://www.youtube.com/watch?v=iilTMZM6AZ>.
- Oiharbide A. eta Etxeberria I. (1986). Altsasuko euskalkiaren inguruko grabaketak. <https://ahotsak.eus/altsasu/>

- Ruiz Torrado, M. (2019ko ekainaren 24a). *La carpeta de Simone: objetos, género y extranjería* en la experiencia carcelaria [Online], 23(2). <https://doi.org/10.4000/etnografica.6674>
- Vallejo, I. (2021eko apirilak 10). Coser y contar. *El País*. <https://elpais.com/eps/2021-04-11/coser-y-contar.html>

Egunkariak/hemeroteka

Diario de Noticias

- Mazkieran, N. (2004ko apirilaren 31). Preparando Santa Águeda. *Diario de Noticias*.
- Mazkieran, N. (2016ko apirilaren 17a). Auzolan por y para Benigno Mendia. *Diario de Noticias*. <https://www.noticiasdenavarra.com/navarra/2016/04/17/auzolan-benignomendia2776905.html>
- Gutierrez, N. (2005eko urtarrilaren 10a). Santa Águeda ya tiene reyes. *Diario de Noticias*.

Guaixe

- Betelu Ganboa, M. (2009ko urtarrilaren 30a). 11 galdera Katali Uribe Uribe Altsasuko brodatzaileari. *Guaixe*.
- Guaixe (2007ko urriaren 26a). Kultur eragileek Esther Irisarri Garasa omenduko dute. Sakana, Guaixe.eus.
- Guaixe (2014ko apirilaren 4a). Altsasuko feministekin emakumezkoek Santa Agedatan izan duten parte-hartzearen bilakaeraz. *Guaixe*. <https://guaixe.eus/altsasu/1396608784819-altsasuko-feministekin-emakumezkoeksanta-agedetan-izan-duten-parte-hartzearen-bilakaeraz>